

509/2024 EBAZPENA, UZTAILAREN 11KOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIARENA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIAREN EKAINAREN 10EKO 434/2024 EBAZPENA ZUZENTZEN DUENA. AZKEN EBAZPEN HORREN BIDEZ, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIAN ERABILTZAILEEI ARRETA EMATEKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILE LANPOSTU BAT BETETZEKO DEIALDIA EGIN ZEN, BEHIN BETIKO BARNE-MUGIKORTASUNAREN, ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENAREN ETA ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ.

Osakidetzako Giza Baliabideetako zuzendariaren ekainaren 10eko 434/2024 Ebazpenaren bidez, erabiltzaileei arreta emateko administrari laguntzaile lanpostu baterako deialdia egin zen, behin betiko barne-mugikortasunaren, aldi baterako barne-sustapenaren eta zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua ezartzen duenez, «Administrazio publikoek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.c) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bitartez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira, eta horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada. Deitutako lanpostuaren destinoaren deskribapenean akats bat antzeman denez, zuzendu egingo da.

Horregatik guztiagatik, eta langileen arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa. – Osakidetzako Giza Baliabideetako zuzendariaren ekainaren 10eko 434/2024 Ebazpena zuzentzeko ebazpena ematea. Ebazpen horren bidez, Erabiltzaileei Arreta Emateko administrari laguntzaile lanpostu bat betetzeko deialdia egin zen, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian behin betiko barne-mugikortasunaren, aldi baterako barne-sustapenaren eta zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko.

Giza Baliabideen zuzendariaren maiatzaren 29ko 434/2024 Ebazpenak honako lanpostu honetarako deia egin zuen:

HELBIDEA	ZUZENDARIORDETZA	ZERBITZUA	HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA/DERRIG ORTASUN-DATA	DESTINO KOP.
Zuzendaritza Ekonomiko eta Finantzieroa		Zerbitzu Estrategikoak	2. HE 22.02.2024	1



Destinoaren deskribapenean akats bat antzeman denez, «Ekonomia eta Finantza Zuzendaritzako Zerbitzu Estrategikoak» jartzen duen lekuan «Osasun Laguntzako Zuzendaritzako Kalitate Zuzendariordetza» jarri beharko luke.

Beraz, destinoaren deskribapena honela zuzendu da:

HELBIDEA	ZUZENDARIODETZA	ZERBITZUA	HIZKUNTZA- ESKAKIZUNA/DERRIG ORTASUN-DATA	DESTIN O KOP.
Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza	Kalitateko Zuzendariordetza		2. HE 22.02.2024	1

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren web-orrian argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. – Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunez luzatuko da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena. – Gainerako jarduketetan, Giza Baliabideen zuzendariaren maiatzaren 29ko 398/2024 Ebazpenean ezarritakoa mantentzea. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian Arlo Korporatiboko Goi Mailako Teknikari Arduradunaren lanpostu bi betetzeko deialdia egiten da, behin betiko barne-mugikortasunaren, aldi baterako barne-sustapenaren eta zerbitzu-eginkizunen bidez.

Bosgarrena. – Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 11a



Osakidetza
Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS

**Giza Baliabideen zuzendaria,
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA**